Maitene Nerekan andreak erantzuten dio indarkeriak ez direla berdinak, Estatukoa diru publikoarekin gauzatzen baita. Ez du uste urriaren 12an Guardia Zibilari beren babesa emateko bildu izanak Getxoko kidego hori babesten dutela baieztatzea legitimatzen duenik. Mozioa mantentzea Osoko Bilkuraren gehiengo osoak onartuko duela deritzo eta, hor, bai islatzen dela bizilagunen gehiengoaren borondatea.

Maitene Nerekan replica que las violencias no son iguales ya que la del Estado se realiza con dinero público. No cree que la gente que se reunió el 12 de octubre para manifestar su apoyo a la Guardia Civil legitime para afirmar que los vecinos de Getxo la apoyan. Opina que el mantenimiento de la moción va a ser aprobada por la mayoría absoluta del Pleno y que ahí si se refleja la voluntad mayoritaria de los vecinos.

Javier Elorza jaunak Guardia Zibilak sektore askoren babesa duela errepikatzen du eta talde Popularrak indarkeria guztiak kondenatzen

Javier Elorza insiste en que la Guardia Civil tiene apoyo en muchos sectores y que el grupo popular condena todas las violencias pero que Bildu sigue sin

dituela, aldiz, Bildu-k ETAren indarkeria kondenatu ezinik jarraitzen duela eta horrek defizit demokratiko handia eragiten duela.

poder condenar la violencia de ETA, lo que supone un déficit democrático muy importante.

Mozioa bozkatzen da eta honako emaitza hau lortzen da: EAJ-PNV eta Bildu taldeen aldeko 14 boto eta PP eta PSE-EE taldeen aurkako 10 boto.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor, PNV, Bildu, 10 votos en contra, PP, PSE-EE.

Ondorioz, gehiengoak onartutako mozioak:

Por mayoría fue aprobada la siguiente moción:

Badira hiru urte baino gehiago ETAk su-eten iraunkorra eta aldebakarrekoa adierazi zuela. Hiru urte luze hauetan aro berri bat zabaltzen hasia dago Euskal Herrian, gatazka politikoa gainditzeko bidean, nahiz eta Espainiar eta Frantziar Estatuak aukerak merezi duen mailan ez daudela erakutsi duten argi eta garbi.

Ya han pasado más de 3 años desde que ETA anunciara su alto al fuego permanente y unilateral. En estos tres largos años, se ha abierto en Euskal Herria una nueva etapa para avanzar en la superación del conflicto político, a pesar de que el Estado Español y Francés hayan demostrado no estar al nivel que requiere esta ocasión.

Euskal herritarroi arrotza zaigun polizia, are zentzugabekoagoa egiten da orain, eszenatoki berri horretan, ETAren indarkeria ez dagoela, ez baitago aitzakiarik Espainiar Estatuak Polizia Nazionala eta Guardia Zibila bezalako indar polizialak Euskal Herrian mantentzen jarraitzeko; horrela adierazi zuen, esaterako, Gasteizko Jaurlaritzak Estefania Beltran de Heredia kontseilariaren ahotan.

Es absurdo que en este nuevo escenario, en el que ya no existe la violencia de ETA, se mantengan fuerzas policiales ajenas y extrañas para los vascos tales como la Policía Nacional y la Guardia Civil; así lo manifestó el propio Gobierno Vasco, por boca de su consejera de Seguridad, Estefanía Beltrán de Heredia.

Egoera politikoaren faktoreaz gain, asko dira, Getxoko Algorta auzoan dugun kuartel-etxearen inguruan herritarrengandik entzuten diren kexu eta aldarrikapenak: sortzen dituen gastuak diru publikoaz ordaintzeagatiko kexua, zergak gainontzeko herritarrak bezala ez ordaintzeagatiko kexua, inguruko auzokideei sortzen dizkien arazoak, justifikatu gabeko polizia kontrol bortitzengatik sufritu beharrekoa...

Independientemente de la actual situación política, son muchas las quejas y peticiones que tenemos en el barrio de Algorta de Getxo en torno a la casa cuartel: quejas por los gastos que genera y que hay que pagar con dinero público, quejas porque no pagan las mismas tasas que el resto de ciudadanía, problemas que les generan a los/as vecinos/as del lugar, controles policiales injustificados que tienen que soportar... Para colmo, estos últimos

Azken urteotan gainera, herri barruan (Villamonten, Euskal Herria kalean...) egindako justifikatu gabeko kontrolak areagotu egin dira.

Bestalde, asko dira herri honek dituen azpiegitura gabeziak, aurretik Getxon egondako beste kuartel batzuekin egin bezala, kuartel etxea hustuz eta herritarrei edo udalari emanez ase daitezkeenak: alokairuzko etxebizitza sozialak, etxe gabekoentzako aterpetxea, ekintzak antolatzeko lokalak etab.

Beraz, uste dugu heldu dela ordua Getxon dagoen kuartel-etxean bizi diren guardia zibilak, errepliege orokor baten barruan, beren sorlekuetara itzul daitezen, kuartel etxea hustuz. Ez du zentzurik getxoztarrok herriari inolako ekarpenik egiten ez dion kuartel-etxe eta guardia zibil taldea mantentzen jarraitu behar izatea, are gutxiago gaur egungo egoera politiko eta ekonomikoan.

Hori dela eta, ondoko proposamena egiten diogu Getxoko Osoko Bilkurari onartua izan dadin:

1.- Getxoko Udalak Administrazio orokorrari eskatzen dio aurrera eraman dezan bere segurtasun indarren moldapena bere eskumenen eremu hertsira, Gernikako Autonomia Estatutoan eta egun indarrean dagoen ordenamendu juridikoan ezarrita dagoen moduan.

2.- Getxoko Udalak Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailari eskatzen dio Segurtasun batzordearen baitan lan egin dezala, estatuko segurtasun indarrean atzera-egiteko irizpideak ezar ditzan, egiazko segurtasun beharrak eta Gernikako

años han aumentado en el casco urbano (Villamonte, Calle Euskal Herria…) el número de controles policiales injustificados.

Por otra parte, son muchas las infraestructuras que necesita este pueblo: viviendas de alquiler social, albergue para los sin techo, locales para actividades… Estas necesidades pueden satisfacerse si se vacía el cuartel y se entrega a la ciudadanía o al Consistorio, tal y como se ha hecho anteriormente con otros cuarteles.

Por tanto, consideramos que ha llegado la hora de que la guardia civil que vive en la casa cuartel de Getxo, dentro de un plan de repliegue general, vuelva a sus pueblos de origen dejando libre la casa cuartel. No tiene ningún sentido que sigamos manteniendo la casa cuartel de una guardia civil que nada aporta a la ciudadanía de Getxo, menos aún en la actual situación política y económica en la que nos encontramos.

Por todo ello, traemos a este Pleno de Getxo para su aprobación las siguientes propuestas:

1.- El Ayuntamiento de Getxo reclama a la Administración Central del Estado que lleve a efecto la adecuación de las fuerzas y cuerpos de seguridad a su estricto ámbito competencial, conforme a lo establecido en el Estatuto de Gernika y en el ordenamiento jurídico vigente.

2.- El Ayuntamiento de Getxo insta al Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco a trabajar en el seno de la Junta de Seguridad de cara a fijar los criterios de repliegue de las fuerzas y cuerpos de seguridad del estado, de conformidad con las necesidades reales

Autonomi Estatutoak emandako eskumenak aintzat harturik.

de seguridad y las competencias atribuidas por el Estatuto de Autonomía de Gernika.

3.- Hala ere eskatzen dugu Guardia Zibilak eta Polizia Nazionalak erabilitako ondasun higiezinak ondasun publiko bihur daitezela Getxon, eta Eusko Jaurlaritzak udalarekin hitzartu ditzan ondasun higiezin hoien erabilera.

3.- Así mismo, pedimos que los bienes inmuebles utiliados por la Guardia Civil y la Policía Nacional sean convertidos en bien público en Getxo y que su uso sea convenido entre el Gobierno Vasco y el ayuntamiento.

4.- Ondorioz, desio dugun prozesu horretan, Getxon dagoen Guardia Zibilaren koartelaren etxebizitzak libratuko direnean, etxe horiek behar sozialetarako erabiltzea dela udal honen nahia adierazi nahi dugu.

4.- En consecuencia, dentro de ese proceso, en la medida en que se libren los edificios donde se encuentra el cuartel de la Guardia Civil en Getxo, queremos expresar que es deseo de este ayuntamiento que sean destinados a usos sociales.

**164.- GETXO-BILDU ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: KONSTITUZIO-AUZITEGIAK KATALUNIAKO KONTSULTA BEHIN-BEHINEKOZ BERTAN BEHERA UZTEKO HARTUTAKO ERABAKIA.**

**164.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL BILDU S/ LA SUSPENSIÓN DECRETADA POR EL TRIBUNAL CONSTITUCIONAL SOBRE LA CONSULTA EN CATALUÑA.**

Maitane Nerekan andreak, mozioa irakurri aurretik, aurkezpenean akats bat zegoela aitortzen du eta barkamena eskatzen du; izan ere, udalerri guztietan ari dira mozio berdinak aurkezten.

Maitane Nerekan, antes de dar lectura a la moción, reconoce que en la presentación hubo un error derivado de que están presentando estas mociones en todos los municipios, por lo que piden disculpas.

Mozioa irakurri ondoren, erabakitzeko eskubidea defendatzea garrantzitsua iruditzen zaiola adierazten du, zeina, bere ustez, udal-eremuetan ere eman beharko litzatekeen herritarren parte-hartzearen bitartez.

Tras dar lectura a la moción indica que le parece importante la defensa del derecho a decidir, que en su oponión debe darse también en los ámbitos municipales a través de la participación ciudadana.

Koldo Iturbe jaunak emendakin transakzional bat planteatzen du; bertan, EAJ-PNV eta Bildu-ren artean,

Koldo Iturbe plantea una enmienda transaccional que recoge el acuerdo adoptado al respecto en el Parlamento

gaiari dagokionez Eusko Legebiltzarrean hartutako akordioa jasotzen da. Jarraian, irakurri egiten du:

"1.- Getxoko Udalak Eusko Legebiltzarrak 2014ko urriaren 9an onetsitako ez legezko proposamena (I. Eranskinean agertzen den testua) berresten du."

Maitane Nerekan andreak, Bildu-k Eusko Legebiltzarrean izandako jarduerarekin koherentzian, transakzionala onartu egiten du.

Luis Almansa jaunak, era berean, emendakin transakzionala aurkezten du; irakurri egiten du:

"1.- Getxoko Udalak, Espainian, hainbat Autonomia Erkidegok lurraldean ahokatzeko arazo politikoa dutela aitortzen du, zeina, herritarrek legitimoki hautatutako ordezkarien bitartez eta ezarritako legezko bideak erabiliz konpondu behar den.
2.- Getxoko Udalak konstituzioaren erreforma defendatzen du, egungo Carta Magnan jasotako eskubide sozialak blindatzeaz gain lurralde-arazoei konponbidea eskaintzea ahalbidetuko duena proiektu partekatua, solidarioa eta parte-hartzailea babestuz Espainia federalaren baitan.
3.- Getxoko Udalak euskal herritarrek hautatutako diputatu eta senatari guztiak presatzen ditu proposamenen prestaketan aktiboki parte hartzera eta herritarren eskubide guztiak eta bere nortasunarenganako errespetua bermatuko dituen herrialde-proiektua ahalbidetuko duten akordioak bilatzera".

Maitane Nerekan andreak ez duela

Vasco entre el PNV y Bildu. A continuación da lectura a la misma:

"1.- El Ayuntamiento de Getxo se ratifica en la proposición no de ley aprobada por el Parlamento Vasco el 9 de octubre de 2014, (texto que aparece en el anexo I)."

Maitane Nerekan, en coherencia con la actuación de Bildu en el Parlamento Vasco, admite la transacional.

Luis Almansa presenta a su vez una enmienda transacional a la que da lectura:

"1.- El Ayuntamiento de Getxo reconoce la existencia en España de un problema político de encaje territorial de diversas Comunidades Autónomas que debe ser resuelto mediante los representantes legítimamente elegidos por los ciudadanos y a través de los cauces legales establecidos.
2.- El Ayuntamiento de Getxo defiende una reforma constitucional que, además de blindar los derechos sociales contenidos en la actual Carta Magna, permita ofrecer una soclución a los problemas territoriales mediante la defensa de un proyecto compartido, solidario y colaborativo dentro de una España ferderal.
3.- El Ayuntamiento de Getxo insta a todos los diputados/as y senadores elegidos por los ciudadanos vascos a que participen activamente en la elaboración de propuestas y búsqueda de acuerdos que hagan posible un proyecto de país que garantice los derechos de todos los ciudadanos y el respeto a su identidad."

Maitane Nerekan indica que no admite

emendakina onartzen adierazten du.

Javier Ruiz jaunak esku hartzen du mozioak Estatuko botere desberdinen mota guztietako eskuduntzak nahasten dituela adierazteko. Erabakitzeko eskubideak ez duela inolako berrespen juridikorik eta autodeterminazio-eskubidea ezkutatzen duela deritzo –araututa legokeena–, bai nazioarteko eremuari dagokionez, zeinak Espainia bezalako Estatu subiranoan ez duen egikaritzeko aukerarik ematen, eta, baita, barne-eremuan ere, zeina Konstituzioan jasota ez dagoen. Autodeterminazioa aldarrikapen politiko bat da, batzuk eskubide gisa planteatzen dutena eta, absurdora eramanez gero, banakako autodeterminaziora ere iris daitekeena. Legezkotasuna betetzea eta legezkotasun hori horretarako aurreikusitako bideak erabiliz aldatzen saiatzea baino demokratikoagoa den ezer ez dagoela adierazten du. Eztabaida erabakiaren subjektua nor den dela aitortzen du; nazionalistek euskal herria bakarrik dela diote eta Konstituzioak, berriz, Espainiako herria dela dio. Erabakitzeko eskubidearen aurrean, PP-k egiarako eskubidea planteatzen du, herritarrek autodeterminazioaren edo independentziaren eraginak ezagutzeko eskubidea. Beren bizi-kalitatea Euskadi edo Katalunia independente batean kaskarragoa izango dela jakin behar dute eta informazio hori ez ematea haiei iruzurra egitea litzateke.

Mozioa bozkatzen da eta honako emaitza hau lortzen da: EAJ-PNV eta Bildu taldeen aldeko 14 boto eta PP eta PSE-EE taldeen aurkako 11 boto.

Ondorioz, gehiengoak onartutako

la misma.

Javier Ruiz interviene para indicar que la moción mezcla todo tipo de competencias de los diferentes poderes del Estado. Estima que el derecho a decidir no tiene ningún tipo de refrendo jurídico y oculta el derecho de autodeterminación, que sí está regulado tanto respecto al ámbito internacional, que no posibilita su ejercicio en un Estado soberano como el español, y en el ámbito interno no está recogido en la Constitución. La autodeterminación es una reivindicación política que algunos plantean como un derecho y que llevado a lo absurdo se puede llegar hasta la autodeterminación individual. Manifiesta que no hay nada más democrático que cumplir la legalidad e incluso tratar de modificar la legalidad por los cauces previstos. Reconoce que la discusión es quién es el sujeto de decisión, que los nacionalistas opinan que es sólo el pueblo vasco y que en la Constitución se dice que el sujeto es el pueblo español. Frente al derecho a decidir, el PP plantea el derecho a la verdad, a conocer los efectos de la autodeterminación o independencia para los ciudadanos, que tienen que saber que su calidad de vida será menor en una Euskadi o Cataluña independientes y no dar esa información a los ciudadanos es cometer un fraude con los mismos.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor, PNV, Bildu, 11 votos en contra, PP, PSE-EE.

Por mayoría fue aprobada la siguiente

mozioak:

2014ko irailaren 19an, Kataluniako Parlamentak irailaren 26ko Kataluniako 10/2014 Legea onartu zuen, aldeko 106 botorekin eta aurkako 28rekin. Berresteko ez diren herri-kontsultei eta herritarren parte-hartzeari buruzko lege hori 2014ko irailaren 27an argitaratu zen Kataluniako Generalitataren Aldizkari Ofizialean.

Halaber, egun bereko aldizkariaren eranskin gisa argitaratu ziren Kataluniako Generalitateko presidentearen irailaren 26ko 129/2014 Dekretua (Kataluniaren etorkizun politikoari buruzko kontsulta deitzekoa) eta horren eranskinak.

2014ko irailaren 29an, Mariano Rajoyren gobernuak erabaki zuen konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsoa aurkeztea Konstituzio Auzitegian, eskatzeko legea eta dekretua behin-behinekoz bertan behera utz zitzaiten.

Irailaren 29an bertan, Konstituzio Auzitegiak erabaki zuen bi arau-testuak behin-behinekoz bertan behera uztea.

Horregatik guztiagatik, Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak, hau erabaki du:

ERABAKIA

1.- Getxoko Udalak errespetatzen eta aitortzen du Kataluniako Parlamentuak abiatutako prozesu politiko eta demokratikoa, kataluniar herriaren gehiengoaren borondate demokratikoaren adierazpen gisa, prezesu horren helburua delarik Kataluniako herritarren erabakitzeko

moción:

El 19 de septiembre de 2014, el Parlament de Cataluña aprobó con 106 votos a favor y 28 en contra, la Ley de Cataluña 10/2014, de 26 de septiembre, de Consultas Populares no Refendarias y Otras Formas de Participación Ciudadana, publicada el 27 de septiembre de 2014 en el Diario Oficial de la Generalitat de Cataluña.

Así mismo, mediante Anexo al Diario Oficial del citado día, se publicó el Decreto 129/2014, de 27 de Septiembre del Presidente de la Generalitat de Cataluña, así como sus anexos, de convocatoria de la consulta no refrendaria sobre el futuro político de Cataluña.

El 29 de septiembre de 2014 el Gobierno de Mariano Rajoy decide interponer un recurso de inconstitucionalidad ante el Tribunal Constitucional, solicitando la suspensión cautelar tanto de la Ley, como del Decreto aprobados.

El mismo día 29 de septiembre, el Tribunal Constitucional decide suspender cautelarmente ambos textos normativos.

Expuesto cuanto antecede, el Pleno del Ayuntamiento de Getxo adopta el siguiente,

ACUERDO

1.- El Ayuntamiento de Getxo acuerda respetar y reconocer el proceso político y democrático iniciado por el Parlamento de Cataluña, como expresión democrática de la voluntad mayoritaria del pueblo catalán, con el objetivo de hacer efectivo el ejercicio del derecho a decidir de los ciudadanos

eskubidearen ariketa gauzatzea, bere etorkizun politiko kolektiboa zehazteko.

2.- Getxoko Udalak aitortzen du herriek beren etorkizun politikoa erabakitzeko zilegitasun demokratikoa daukatela, muga herritarrek demokratikoki adierazi eta erabakitzen dutena izan behar delarik.

y ciudadanas de Cataluña para determinar su futuro político colectivo.

2.- El Ayuntamiento de Getxo reconoce la legitimidad democrática de los pueblos para decidir su futuro político, teniendo que ser el límite lo que la ciudadanía exprese y decida democráticamente.

**165.- PSE-EE ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: PINTADURAK GARBITZEKO ETA KENTZEKO EGITASMOA.**

Luis Almansa jaunak mozioa irakurtzen du.

Joseba Arregui jaunak esku-hartzen du Udalak pintadak garbitzeko zerbitzua duela adierazteko; egunean bi lanaldiz osatzen da eta bat iraunkorra izango da pintada iraingarriak kentzeko. Jarraian zerbitzu horien funtzionamenduari buruzko xehetasunak ematen ditu. Zerbitzuaren irizpideetan iradokizunei irekiak daudela eta mozioan planteatutakoak aztertuko dituztela adieraziz amaitzen du. Ondorioz, bozketan abstenitu egingo dira.

Iñaki Gamero jaunak adierazten du talde Popularrak mozioa babestu egingo duela. Pintadek utzikeria-irudia ematen dutela eta hori ez datorrela bat Getxoren errealitatearekin dio. Azken aldian zerbitzu kaskarragoa eskaintzen dela adierazten du eta enpresako sindikatuek adierazi zuten gisan, baliteke hori kontratuaren arabera pertsona egokiak ez atxikitzeagatik izatea. Gobernu-taldeari beren babes osoa dutela adierazten diote eta ilegalki

**165.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA S/ ELABORACIÓN DE UN PLAN DE CHOQUE DE LIMPIEZA DE PINTADAS.**

Luis Almansa da lectura a la moción.

Interviene Joseba Arregui para indicar que el Ayuntamiento dispone de un servicio de limpieza de pintadas con dos jornadas de trabajo diarias y una permante para eliminar pintadas ofensivas, dando detalles a continuación del funcionamiento de estos servicios. Finaliza manifestando que están abiertos a sugerencias en los criterios del servicio y que van a estudiar las planteadas en la moción, razón por la cual se van a abstener en la votación.

Iñaki Gamero manifiesta que el grupo popular va a apoyar la moción. Indica que las pintadas dan una imagen de abandono que no se corresponde con la realidad de Getxo e indica que últimamente se está viendo una peor prestación de ese servicio y que, tal y como han manifestado los sindicatos de la empresa, puede deberse a que no se están adscribiendo las personas que debieran según el contrato. Manifiesta al equipo de gobierno que tiene todo su

pintatzen dutenen aurrean jagole- eta zehatze-jarrerari eusteko eskatzen dio, kontzientziazio-kanpainak egiteaz gain.

apoyo en ese trabajo y pide que se mantenga una actitud de vigilancia y sanción a los que pintan ilegalmente, además de campañas de concienciación.

Luis Almansa jaunak adierazten du mozioaren iturburua auzotarren kexa bat izan zela eta Getxok kale garbiak baina horma zikinak dituela ondoriora iritsi dela, berak Algortan bakarrik 200 pintada baino gehiagoren argazkiak baititu. Horregatik, mozioak zerbitzu publikoek pintada horiek kentzeko funtziona dezatela eskatzen du eta hasiera batean, talka-plan bat planteatzen du eta horren mantentzea. Egokia iruditzen zaio horma edo panel mugikorrak finkatzea ere graffitigileek beren artea erakusgai jartzeko.

Luis Almansa informa que la moción surgió de una queja vecinal y que ha llegado a la conclusión de que Getxo tiene calles limpias pero paredes sucias ya que él tiene fotografiadas más de 200 pintadas solamente en Algorta. Por eso, la moción pide que los servicios públicos funcionen para eliminar dichas pintadas y plantea, inicialmente, un plan de choque y el consiguiente mantenimiento. También le parece oportuno determinar muros o paneles móviles para que los graffiteros expongan su arte.

Mozioa bozkatu egiten da eta honako emaitza hau lortzen du: PP eta PSE-EE taldeen aldeko 11 boto, Bildu taldearen aurkako 4 boto eta EAJ-PNV taldearen 10 abstentzio-boto.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 11 votos a favor, PP, PSE-EE, 4 votos en contra, Bildu y 10 abstenciones, PNV.

Ondorioz, gehiengoak onartutako mozioak:

Por mayoría fue aprobada la siguiente moción:

Zoritxarrez, gure udalerriko hainbat zonek fatxadetan, hormetan eta hiriko altzari askotan egindako pintaden ondorioz, Getxoren irudi txar bat ematen dute. Udalerriak garbi egon beharko luke bertan bizi direnentzako eta bisitarientzako onura estetiko bat lortzeko.

La lamentable situación que presentan numerosas zonas de nuestro municipio como consecuencia de pintadas en fachadas, muros y diverso mobiliario urbano, genera una mala imagen para Getxo, que sin duda debería lucir limpio con el fin de conseguir un beneficio estético tanto para sus vecinos y vecinas como para sus visitantes.

Pintada horiek espazio publikoak hondatzen dituzte eta utzikeriaren sentsazioa ematen dute. Gure ondare historikoaren eta hiriko altzarien irudi kaskarra ematen dute eta, horrek balioa kentzen diote.

Estas pintadas deterioran los espacios públicos y dan sensación de abandono y dejadez. No ofrecen una adecuada imagen de nuestro patrimonio histórico y mobiliario urbano, resultando de todo ello una depreciación del mismo.

Ugariak dira egunetik egunera hormak pintadez estalirik ikusten dituzten herritarren eta merkatarien kexak, beren ondasunek jasaten dituzten eragozpenak eta eraso zuzenak salatzeko zeri heldu zehazki ez dakitela.

Son numerosas las quejas de vecinos, vecinas y comerciantes que ven como día a día las paredes están cubiertas de pintadas sin que sepan exactamente a qué atenerse para denunciar esta molestia y este ataque directo a sus bienes.

Horregatik, bereizi egin behar dira gizalegearen aurka eta legez kontra debekatutako lekuetan egindako pintadak arte-adierazpen gisa egindako graffitietatik, 60ko hamarkadan New Yorken hasi zen artea eta horren baitan benetako genero bilakatu dena.

Pero es necesario diferenciar las pintadas incívicas hechas en lugares prohibidos y de forma ilegal, del graffiti como expresión artística, arte que se inició en los años 60 en Nueva York y que se ha transformado en todo un género dentro del mismo.

Pintadak ezabatzera eta haien esposizio-denbora murriztera zuzendutako neurriak hartu dituzten udalerriek pintadak, gutxi gorabehera, 24 orduko epean ezabatzeko konpromisoa finkatu dute eta kaleetan pintaden presentzia nabarmen murriztea lortu dute, baita, berriro agertzeko gogoa ahuldu ere.

Municipios que han llevado a cabo medidas enfocadas a eliminar y a reducir el tiempo de exposición de las pintadas, han establecido un compromiso de borrado de aproximadamente 24 horas, consiguiendo reducir notablemente la presencia de pintadas en sus calles, además de desalentar su reaparición.

Horren neurri osagarri bat graffitigileei beren imajinazioa askatzeko eta erkidegoaren edo bertako bizilagunen ondasunak kaltetu gabe beren sormenak egiteko aukera emango dieten gune zehatzak gaitzea litzateke.

Una medida complementaria, sería habilitar puntos concretos en los que las y los graffiteros puedan dar rienda suelta a su imaginación y realizar sus creaciones sin dañar los bienes de la comunidad o de sus habitantes.

Udaletik eta ikastetxeetatik ere gizalegearen eta guztion ondarearenganako errespetuaren baloreak sustatu beharko lirateke informazio- eta kontzientziazio-kanpaina baten bidez.
Horregatik guztiarengatik, Getxoko Udaleko Udal-Talde Sozialistak Udalari aurkezten dio honako ERABAKI-proposamena:

También desde el Ayuntamiento y desde los centros educativos se deberían fomentar los valores del espíritu cívico y el respeto al bien común con una campaña informativa y de concienciación.
Por todo lo expuesto, el Grupo Municipal Socialista presenta al Ayuntamiento Pleno la siguiente propuesta de
ACUERDO

1. Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak Alkatetza presatzen du hormetan,

1. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta a la Alcaldía a que realice

fatxadetan eta gainerako hiriko elementu guztietan, publikoak nahiz pribatuak izan, dauden pintadak ezabatzeko talka-plan bat egitera.

un plan de choque para la eliminación de todas las pintadas existentes en muros, fachas y demás elementos urbanos, tanto públicos como privados.

2. Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak behin garbiketa osoa egiten denean, mantentze-lan azkar eta etengabearekin jarraitzea erabakitzen du.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo acuerda que una vez realizada la limpieza integral, se continúe con un mantenimiento rápido y constante.

3. Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak herritarren artean kontzientziazio- eta elkarlan-kanpaina egitea erabakitzen du horiek ezabatzeak eragiten duen kostu ekonomikoari buruzko informazioa emanez eta, horrela, gure udalerriari garbi eta pintadarik gabe eusteko beharra transmitituz.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo acuerda que se realice una campaña ciudadana de concienciación y colaboración con información del gasto económico que supone su eliminación, para transmitir la necesidad de que nuestro municipio se mantenga limpio y libre de pintadas.

4. Halaber, Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak Alkatetza espazio publikoak (hormak, panel mugikorrak eta abar) gaitzera presatzen du, graffitigileei beren artea erkidegoko ondasunak kaltetu gabe adierazten laguntzeko.

4. Asimismo, el Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta a la Alcaldía a que habilite espacios públicos (muros, paneles móviles, etc) para contribuir a que los graffiteros puedan expresar su arte sin dañar los bienes de la comunidad.

Maitane Nerekan andreak bere taldearen aurkako botoa azaltzen du; izan ere ez zaio iruditzen Getxoko hormen egoera horren larria denik eta, gainera, zona jakin batzuetan graffiti gehiago egoteak kaleen estetika hobetuko luketela deritzo. Halaber, ez zaio horrelako zereginetara baliabide gehiago bideratzeko beharra dagoenik iruditzen.

Maitane Nerekan explica el voto negativo de su grupo porque no cree que la situación de las paredes de Getxo sea tan grave y, de hecho, cree que la incorporación de más graffitis en determinadas zonas mejoraría la estética de las calles. Asimismo, no cree que sea necesario destinar más recursos a este tipo de labores.

**166.- PSE-EE ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: EENERGIA-GABEZIAREN AURKA ETA KONTSUMITZAILE BABESGABEEN ALDE.**

**166.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA S/CONTRA LA POBREZA ENERGÉTICA Y SOBREPROTECCIÓN DE LOS CONSUMIDORES VULNERABLES.**

Agustín Ruiz jaunak hurrengo mozioa

Agustín Ruiz da lectura a la siguiente

irakurtzen du.

Pobrezia energetikoa pairatzen ari garen krisi sozial eta ekonomiko larriaren beste ondorioz bat da. Etxeko kideak etxeko beharrak asetzeko energiaren zerbitzu kopuru nahikoa ordaintzeko gai ez direnean edota beren diru-sarreren gehiegizko zati bat etxeetako energiaren faktura ordaintzera bideratzera behartuta daudenek bizi duten egoera litzateke.

Ingurumen-Zientzien Elkarteak (ACA) egindako erreferentzia egiten zaion azterketaren arabera, jada, zazpi milioi espainiarrek ikaragarrizko zailtasunak dituzte hilaren amaieran argiaren fakturari aurre egiteko eta, ondorioz, lehentasuna eman behar izaten diete edota aukeratu egin behar izaten dute bizirauteko oinarrizko gaietatik, bizitza duin bat edukitzearekin guztiz lotuta daudenak, zein estali ditzaketen eta zein ez.

Eta gure erkidegoan, 2014aren hasieran, energiaren horniduratik eratorritako gastuak ordaintzeko zailtasunak zituzten pertsonen kopurua 90.000an zenbatu zen. Beren gobernuarentzako lehentasun ez ziren hiritarrak, eztabaida parlamentarioan egiaztatu ahal izan genuen moduan, edota, ondoren, gobernuko kontseilariei zein neurri abian jartzeko asmoa zuten galdetu zitzaienean erantzunik eman ez zutela ikustean.

Egoera hori izan zen, hain zuzen, euskal talde parlamentario sozialista Eusko Jaurlaritza, Espainiako gobernuak bere erantzukizunak bere gain hartzen ez dituen bitartean, bere

moción.

La pobreza energética es una consecuencia más de la grave crisis social y económica que estamos padeciendo. Se define como aquella situación que sufren los hogares cuyos miembros son incapaces de pagar una cantidad de servicios de la energía suficientes para la satisfacción de sus necesidades domésticas y/o se ven obligados a destinar una parte excesiva de sus ingresos al pago de la factura energética de sus viviendas.

Según el estudio de referencia realizado por la Asociación de Ciencias Ambientales (ACA) son ya siete los millones de españoles con enormes dificultades para hacer frente al recibo de la luz a final de mes, debiendo dar prioridad o elegir entre qué cuestiones básicas de subsistencia, muy unidas al desarrollo de una vida digna, pueden permitirse y cuáles no.

Y en nuestra Comunidad al inicio del 2014 se cifraba, que el número de personas que tenían dificultades para sufragar los gastos derivados del pago del suministro de la energía eran 90.000. Ciudadanos y ciudadanas que no eran prioridad para su gobierno, como pudimos comprobar durante el debate parlamentario o posteriormente por la ausencia de respuesta cuando se les interpeló a los distintos Consejeros y Consejeras del Gobierno sobre las medidas que pensaban poner en marcha.

Esta situación es lo que motivó al grupo parlamentario socialista vasco a instar al Gobierno Vasco a que “en tanto en cuanto el Gobierno de España no asuma su responsabilidad, en el

autogobernurako ahalmen egikarituz, bere fakturei, bereziki, eskaera handieneko garaian, erantzun ezin dien pertsonen egoeran daudela froga daitekeen edonori argia, ura edo gasa moztea ekiditeko beharrezko neurriak hartzera presatu zuena".

ejercicio de autogobierno establezca las medidas necesarias para impedir que a ningún ciudadano/a se le pueda cortar la Luz, el agua o el gas si se encuentra en situación demostrable de no poder atender sus facturas, en especial en las épocas de mayor demanda".

Izan ere, egoera larri horren aurrean, gaiari dagokionez, jarrera desberdinak daude: beste alde batera begiratzea, koiuntura-soluzio bat planteatzea (beste udal eta erakunde batzuek egin duten moduan) edota elkartasunarekin eta, baita, legediarekin ere, eragotzi daitezkeen egoera dramatikoak konponduko dituzten egiturazko neurriak hartzea.

Porque ante esta grave situación existen diferentes posicionamientos al respecto: mirar para otro lado, plantear una solución de coyuntura (como nos consta han hecho Ayuntamientos y otras instituciones) o adoptar medidas estructurales que remedien situaciones dramáticas que pueden ser evitadas con solidaridad y también con legislación.

Kontsumitzaile zaurgarrienak babestuko dituen legedia, energia-hornidura oinarrizko eskubide sozialtzat hartuz eta kontsumitzaile zaurgarrienek, beren diru-sarreren arabera eta ez merkatukoaren arabera, tarifa soziala eskuratzea bermatuz; eta garrantzitsuena izango dena, neguan ez dadila argindarraren hornidura moztu bermatzea.

Legislación que proteja a los consumidores más vulnerables, considerando el suministro de la energía como un derecho social básico, garantizando que los consumidores más vulnerables accedan a una tarifa social en función de sus ingresos y no del mercado y lo más importante que no haya cortes de suministro durante el invierno.

Horregatik guztiarengatik eta ikuspegi orokor batetik, Osoko Bilkurari, eztabaidatua eta onetsia izan dadin, proposatzen diogu honako mozioa:

Por todo ello, y desde un enfoque global proponemos para su debate y aprobación en el pleno la siguiente Moción

ERABAKIA

ACUERDO

1. Getxoko Udalak Foru-gobernua eta Eusko Jaurlaritza presatzen ditu gizarte-erakundeekin eta eragindako eragile ekonomikoekin eta gizarte eragileekin elkarlanean, pobrezia energetikoa erauzteko estrategia bat abian jartzera.

1. El Ayuntamiento de Getxo insta al Gobierno Foral y al Gobierno Vasco a que, en colaboración con las Entidades Sociales y los agentes económicos y sociales afectados pongan en marcha una estrategia para la erradicación de la pobreza energética.

2. Getxoko Udalak Foru-gobernua

2. El Ayuntamiento de Getxo insta

eta Eusko Jaurlaritza presatzen ditu pobrezia energetikoaren aurka konpromiso bat hartzera, horren aurka borrokatzeko larrialdi-funts bat sortuz.

al Gobierno Foral y al Gobierno Vasco a la adopción de un compromiso contra la pobreza energética, creando un fondo de emergencia para luchar contra la misma

3. Getxoko Udalak Eusko Jaurlaritza presatzen du pobrezia energetikoari buruz otsailaren 27ko Osoko Bilkuran lortutako akordioa betetzera.

3. El Ayuntamiento de Getxo insta al Gobierno Vasco a dar cumplimiento del acuerdo alcanzado en el Pleno de 27 de febrero referido a la pobreza energética.

4. Getxoko Udalak Espainiako Gobernua presatzen du Diputatuen Kongresura, berehala, kontsumitzailerik zaurgarrienak babestuko dituen eta pobrezia energetikoaren aurkakoa izango den lege bat aurkeztera.

4. El Ayuntamiento de Getxo insta al Gobierno de España a que de forma inmediata presente en el Congreso de los Diputados para su aprobación una Ley de protección de los Consumidores más vulnerables y contra la pobreza energética.

Agustin Ruiz jaunak adierazten du egun bizi dugun krisiak hainbat egoera agerian utzi dituela, horien artean, utzarazteak, elikagairik eza, eskolako ekipamendurik eza eta, baita, pobrezia energetikoa ere. Udalaren irismena eta baliabideak mugatuak direla jakin badaki, baina egiteak merezi duela uste du.

Agustín Ruiz indica que la actual crisis ha evidenciado unas situaciones como los desahucios, la falta de alimentos, carencia de equipamientos escolares y también la pobreza energética. Sabe que el alcance y las posibilidades municipales son limitadas pero cree que merece la pena realizarlas.

Elena Coria andreak adierazten du mozio hau Eusko Legebiltzarrean landu zela eta Espainiako Parlamentuan aurkeztutako lege-proposamen baten ondorioz ez zela onartu. Euskal Autonomia Erkidegoa dela pobrezia-tasarik txikiena duena gogorarazten du, batez ere, urte asko daramatzagulako gizarte-zerbitzuak eta gizarte-babesa sendotzen. Pobrezia energetikoa pobrezia ekonomikoaren ondorioa da, beraz, zeharkako lanketa beharrezko egiten du eta ez Gizarte Zerbitzuetatik soilik. Gutxiengo Diru-Sarreren Bermerako Legeak energiara bideratutako gastuak jasotzen ditu eta, Getxon, banakako laguntzak,

Elena Coria manifiesta que esta moción se debatió en el Parlamento Vasco y es a causa de una proposición de ley presentada en el Parlamento español que no llegó a aprobarse. Recuerda que Euskadi es la Comunidad Autónoma con menores índices de pobreza, básicamente porque se lleva muchos años trabajando en la consolidación de los servicios sociales y de la protección social. La pobreza energética es una derivación de la pobreza económica, lo que hace que sea necesario un abordaje transversal y no sólo desde los Servicios Sociales. La Ley de Garantías de Ingresos Mínimos recoge gastos destinados a energía y en Getxo

aldizkakoak ez direnak, ere badaude gutxieneko berme-errenta jaso ezin dutenentzako. Gaia dagokion lekuan eta soluzioa eman dakiokeenean lantzeko ahalegina egin behar dela uste du, Espainiako Parlamentuan alegia, baina PP-k arazoa konpondu nahi ez duen bitartean gainerako administrazioek, ahal duten neurrian, egoera arintzen saiatu beharko dute. Talde sozialistari lehenengo hiru puntuan kentzea proposatzen dio, kendu ezean, Eusko Legebiltzarrean eta beste foro batzuetan bozkatutakoarekin koherentzian bozkatu beharko dutelako.

también existen ayudas individuales, no periódicas, para aquellos que no puedan acceder a la renta de garantía mínima. Cree que hay que esforzarse por tratar el tema donde corresponda y pueda darse una solución, que es en el Parlamento español, pero que en tanto que el PP no quiera resolver el problema, el resto de las administraciones tendrá que ayudar a paliar en la medida de lo posible. Propone al grupo socialista la retirada de los tres primeros puntos, ya que de no hacerlo votarán en coherencia con lo que han votado en el Parlamento vasco y en otros foros.

Agustin Ruiz jaunak adierazten du talde sozialistak mozioari bere osotasunean eusten diola.

Agustín Ruiz indica que el grupo socialista mantiene la moción en su integridad.

Jone Ruiz de Eguilaz andreak esku-hartze du talde Popularraren izenean pobrezia energetikoa krisi-egoeraren ondorioa dela eta gobernua pobreziaren aurka borrokatzeko ahal duen guztia egiten ari dela adierazteko; horrela, arlo horretan gauzatzen ari den jarduerak zehazten ditu eta, baita, energia-kostuak murrizteko egiten ari dena ere, zeinak, azken urteotan gehitu egin diren eta, bereziki, gobernu sozialistaren garaian, proportziorik gabe gehitu ere. Egoera horretaz gain, gobernuak bono sozialarekin dihardu, 2,5 milioi etxeri eragiten diona, eta faktura elektrikoaren murrizketarekin. Sozialistak kritikatuz amaitzen du, energiaren defizitaren arduradunak baitira, nahiz eta orain kontsumitzaileari laguntzeko proposamenak aurkeztea ondo iruditzen zaien.

Jone Ruiz de Eguilaz interviene, en nombre del grupo popular, para indicar que la pobreza energética es una derivación de la situación de crisis y que el gobierno está realizando todo lo que puede para luchar contra la pobreza y detalla las actuaciones que realiza en ese ámbito, así como también lo que viene realizando para buscar la reducción de los costes energéticos que en los ultimos años, que fundamentalmente en los años del gobierno socialista, se incrementaron de manera desproporcionada. Además de esta situación, el gobierno está actuando con el bono social, que afecta a más de 2,5 de millones de hogares, y con la reducción de la factura eléctrica. Finaliza criticando a los socialistas por ser los responsables del déficit energético, aunque le parece bien que ahora presenten propuestas de apoyo al consumidor.

Mozioa bozkatu egiten da eta ez da

Sometida la moción a votación es

onartzen Bildu eta PSE-EE taldeen aldeko 6 boto, EAJ-PNV taldearen aurkako 10 boto eta PP taldearen 9 abstentzio-boto lortzean.

rechazada al obtener 6 votos a favor, Bildu, PSE-EE, 10 votos en contra, PNV y 9 abstenciones, PP.

## GALDE-ESKEAK

Maitane Nerekan andreak adierazten du Bildu taldeak denbora daramala Alkateari Udala ordezkaturik dagoen erakundeetako aktak bidaltzeko eskatzen eta behin bidali bazitzaizkien ere gehiago ez dizkietela bidali; beraz, bilerarik egon bada zergatik ez zaizkien aktak bidali galdetzen dio Alkateari.

Alkateak erantzuten dio Getxoko Udala ordezkaturik dagoen erakunde desberdin horietako akten eraentza juridikoa aztertu behar dutela eta azterketa horren arabera erantzungo diela.

Horretaz gain, Alkateak Osoko Bilkuran adierazten du gaur igorri dizkiola Bildu-ri azkeneko Osoko Bilkuran eskatu zituen informazio-eskaera desberdinen erantzunak.

Roberto Martin jaunak bere eskuduntza Udaleko Erregelamendu Organikoa interpretatzea edota betearaztea den galdetzen dio Alkateari.

Alkateak erantzuten dio Ordenantzaren aplikazioa interpretatzea eta betearaztea dagokiola.

Roberto Martin jaunak adierazten du Alkateak Maitane Nerekan andreari aurreko puntu batean ez diola utzi esku-hartzen Gobernu-taldeko ordezkari batek egin duen boto-azalpenari erantzuteko eta bere interpretazioarekin ROMaren 93. eta

## RUEGOS Y PREGUNTAS

Maitane Nerekan pregunta al Alcalde que Bildu lleva tiempo pidiendo que se le remitan las actas de las instituciones en las que el Ayuntamiento está representado y que si bien se les remitió una vez ya no se les ha vuelto a remitir y, por tanto, pregunta si es que ha habido reuniones y porqué no se han remitido las actas.

El Alcalde responde que tienen que analizar el régimen jurídico de las actas de esos diferentes organismos en los que está representado el Ayuntamiento de Getxo y que a partir de dicho análisis responderá.

El Alcalde también comunica al Pleno que hoy se ha remitido a Bildu la respuesta a las diferentes demandas de información que realizó en el último Pleno.

Roberto Martín pregunta al Alcalde que si lo que le compete es interpretar el Reglamento Orgnánico Municipal o hacerlo cumplir.

El Alcalde responde que le corresponde interpretar su aplicación y hacerlo cumplir.

Roberto Martín indica que el Alcalde no ha dejado intervenir a Maitane Nerekan en un punto anterior para responder a una explicación de voto realizada por el representante del equipo de gobierno y que con su interpretación ha infringido lo dispuesto en el art. 93 y 106 del ROM

106. artikuluetan xedaturikoa urratu duela eta, beraz, erregelamendu hori betetzeko eskatzen dio.

y ruega al Alcalde que cumpla dicho reglamento.

Alkateak adierazten dio idatzitako arauez gain, idatzi gabeko arauak ere badaudela eta, baita, lan-taldeen funtzionamendurako arauak ere. ROMaren lan-taldean, gai bati buruz behin betiko akordio batera iristen zirenean hura Osoko Bilkurari aurkezteko unea izango zela adostu zutela gogorarazten du eta Bildu-k gaur mozioari buruz egin duen aurkezpenarekin ez duela alderdi hori bete. Udalbatza-kideari ROMa aplikatzeko duen interesa eskertzen dio eta egiten ari den ROMaren aplikazioa nahiko malgua dela adierazten du bai edukiei bai esku-hartzeen iraupenari dagokienez eta Osoko Bilkura honetan ere irizpide berdinei jarraitu diela. Uneren batean, agian, nahastu zitekeela eta Bildu-ko udalbatza-kideak egindako oharra kontuan hatuko duela, hobetzeko asmoz, aitortuz amaitzen du.

El Alclade le indica que, aparte de las normas escritas, hay normas no escritas y también normas para funcionamiento de grupos de trabajo y recuerda que en el grupo de trabajo del ROM se acordó que cuando se llega a un acuerdo definitivo sobre una cuestión sería el momento de plantarla al Pleno y que Bildu no ha cumplido en dicha cuestión con la presentación que ha hecho hoy de la moción. Agradece al corporativo su interés en que se aplique el ROM y opina que la aplicación que viene realizando del ROM es bastante flexible tanto en los contenidos como en los tiempos de las intervenciones y que en este Pleno ha seguido el mismo criterio. Finaliza reconociendo que en algún momento se ha podido confundir y que toma apunte de lo manifestado por el corporativo de Bildu para mejorar.

Roberto Martin jaunak Bildu-k zein manu ez duen bete ROMaren aldaketarako lan-taldearen aktak web orrian zintzilikatzeagatik galdetzen dio Alkateari.

Roberto Martín pregunta al Alcalde qué precepto del ROM ha incumplido Bildu por haber colgado en su página web las actas del grupo de trabajo de modificación del ROM.

Alkateak erantzuten dio gai hori lan-taldean landuko dela eta talde desberdinek Bildu jarduera hori aldebakarrekotasunez eta aurretik batzordean aipatu gabe egiteagatik kritikatu dutela; gainera, jarduera horiek lan-taldearen funtzionamenduan eragiten dutela dio.

El Alcalde le contesta que dicho tema se tratará en el grupo de trabajo y que la crítica de los diferentes grupos a Bildu ha sido por efectuar unilateralmente esta actuación sin comentar previamente en la comisión y que estas actuaciones influyen en el funcionamiento del grupo de trabajo.

Gai gehiagorik ez dagoenez, Lehendakari jaunak bilkura bukatutzat eman du arratsaldeko bederatziak eta berrogeita hamar minutu direnean.

Y no habiendo otros asuntos de que tratar, el Sr. Presidente levantó la sesión siendo las veintiún horas y cincuenta minutos de este día,

Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu dut akta honetan eta alkate jaunak eta biok sinatu dugu. Eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía el Sr. Alcalde, de todo lo cual yo, el Secretario, doy fe.